Euskadiko enplegu-datuen balorazioa, 2025eko abendua

Enplegu zuzendaria, Arantza Martínez Tobalina

Euskadik beste marka historiko bat lortu du Gizarte Segurantzako afiliazioan 1.036.804 kotizatzaileekin

Ezohiko abendu batean, langabeen kopuruak gora egin du zertxobait 2024koarekin alderatuta (0,05), eta berretsi egin da zikloek aurrera egin dutela euskal lan-merkatuan

Datuek erakusten dutenez, kontratazio-bolumen handiagoa izan da, osasun-jarduerek bultzatuta (9.048 kontratu), eta, horren atzetik, ostalaritza-sektorea

Euskadiko lan-merkatuak ezohiko portaera izan du abenduan: langabeen kopuruak gora egin du (948), aurreko hilabetearen aldean (% 0,89); guztira, 107.434 pertsona daude langabezian. Jokabide honek ohiko urtarokotasuna hausten du, eta zikloen aurrerapena baieztatzen du, iazko udan ikusitakoaren antzekoa.

Hala ere, urte arteko konparazioan, datuak testuinguru errealean kokatzea ahalbidetzen baitu, erregistratutako langabezia ia egonkor mantendu da iazko abenduaren aldean, 54 langabe gehiagorekin soilik (% 0,05).

Kontratazio-ereduen aldaketek testuinguru berria markatu badute ere, Euskadik, 2025eko azken hilabetean, maximo historiko berri bat lortu du Gizarte Segurantzako afiliazioari dagokionez, eta 730 pertsona afiliatu gehiago ditu.

Euskadik Gizarte Segurantzan afiliatutako 1.036.804 pertsonekin itxi zuen abendua, aurreko hilean baino 730 gehiagorekin (% 0,07), eta horrek Euskal Autonomia Erkidegoko kotizatzaile-errekor berria ekarri du. Urte arteko datuei dagokienez, 12.293 langile gehiago daude afiliatuta Euskal Autonomia Erkidegoan, 2024ko abenduko datuekin alderatuta % 1, 20 gehiago.

Urte arteko datuei dagokienez, portaera desberdina izan da hiru lurralde historikoetan. Araban 17 pertsona gutxiago daude langabezian (% 0,09), eta Bizkaian 139 gutxiago (% 0,23); Gipuzkoan, berriz, 210 pertsona gehiago daude langabezian (% 0,74).

Sektoreka, hileko saldoan, Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruaren beherakadarik handiena aurreko lanik gabekoen artean gertatu da (- 276, % 1,91), eta jarraian Lehen Sektorea dago (- 16, % 0,83), urte arteko zifra onak ere eskaintzen dituena (- 106, % 5,23). Gehikuntzarik handiena, berriz, Zerbitzuetan (+ 885, % 1,19), Industrian (+ 283, % 2,74) eta Eraikuntzan (+ 72, % 1,33) izan da, nahiz eta 2024ko abenduaren aldean sektore honek izan jaitsierarik handiena (- 357, % 6,09).

Kolektiboen arabera, langabeziak behera egin du, batez ere emakumeen artean, azaroarekin alderatuta 75 langabe gutxiago baitaude (% 0,12), eta 30 eta 44 urte bitarteko pertsonen artean, % 2,38ko jaitsiera nabarmena izan baitute (- 731) urteko konparatiboan.

Kontratazioa

Kontratazioari dagokionez, abenduan 61.673 kontratu erregistratu ziren; horietatik 12.299 mugagabeak dira, guztizkoaren % 19,9. Kontratazio-bolumena handia da 2024ko zifrak kontuan hartuz gero (57.504), baina pixka bat uzkurtzen da 2025eko azaroarekin alderatuta (% 0,32), urtaroen araberako portaera berriarekin bat etorriz.

Jarduerari dagokionez, behin-behinekotasunagatik nabarmentzen den Gabonetako garai honetan, Osasun Jarduerek erregistratu dituzte kontratu gehien (9.048), ostalaritza-sektorearen aurretik (8.724 sinatu ditu), nahiz eta azken honek kontratazio mugagabearen pisuaren % 26,2ari eusten dion, batez bestekoa baino askoz handiagoa den ehunekoa.

Laburbilduz, abenduko datuek kontratazio-bolumen handiagoa islatzen dute, osasun-jarduerek eta ostalaritzak bultzatuta. Behin-behinekotasunak eta partzialtasunak lan-egonkortasuna baldintzatzen jarraitzen dute, eta, testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak berretsi egiten du lan-eskubideen defentsarekin eta lan-arloko edozein iruzur edo gehiegikeriaren aurkako borrokarekin duen konpromisoa. Euskadiko Lan Ikuskaritzak abian jarritako lan-kontratazioko bigarren talka-planaren eta izaera sistemikoko praktika irregularrei aurre egiteko berariazko informazio-kanpainen bidez, Eusko Jaurlaritzak zaintza-lana areagotzen jarraituko du, enplegu egonkorragoa eta kalitate handiagokoa lortzeko bidean aurrera egiteko.

2025eko abenduko langabe-eskatzaileak

				Hileko bilakaera		Urteko bilakaera	
	abe.-2025	aza.-2025	abe.-2024	Saldoa	Eb %	Saldoa	Eb %
SEXUA:							
GIZON	45.915	44.892	46.131	1.023	2,28	-216	-0,47
EMAKUME	61.519	61.594	61.249	-75	-0,12	270	0,44
30 URTETIK BEHERA:							
BIAK	17.868	17.782	17.517	86	0,48	351	2,00
GIZON	8.958	8.811	8.726	147	1,67	232	2,66
EMAKUME	8.910	8.971	8.791	-61	-0,68	119	1,35
30 URTETIK 44RA:							
BIAK	30.033	29.429	30.764	604	2,05	-731	-2,38
GIZON	11.477	10.912	12.104	565	5,18	-627	-5,18
EMAKUME	18.556	18.517	18.660	39	0,21	-104	-0,56
45 URTETIK GORA:							
BIAK	59.533	59.275	59.099	258	0,44	434	0,73
GIZON	25.480	25.169	25.301	311	1,24	179	0,71
EMAKUME	34.053	34.106	33.798	-53	-0,16	255	0,75
SEKTOREA:							
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	1.547	1.455	1.447	92	6,32	100	6,91
INDUSTRIA	20.876	20.866	21.067	10	0,05	-191	-0,91
ERAIKUNTZA	1.260	1.245	1.218	15	1,20	42	3,45
ZERBITZUAK	15.586	15.821	15.766	-235	-1,49	-180	-1,14
AURREKO ENPLEGURIK GABE	4.242	4.274	4.147	-32	-0,75	95	2,29
LURRALDE HISTORIKOA:							
Araba	18.332	18.053	18.349	279	1,55	-17	-0,09
Bizkaia	60.474	60.254	60.613	220	0,37	-139	-0,23
Gipuzkoa	28.628	28.179	28.418	449	1,59	210	0,74
EAE	**107.434**	**106.486**	**107.380**	**948**	**0,89**	**54**	**0,05**

GUZTIRA	107.434	106.486	107.380	948	0,89	54	0,05

Langabezia-datuen bilakaera abenduan





Bilbaon, 2026ko urtarrilaren 5ean